

Leila Khaled (Haifa, 1944) Palestinako erresistentziaren historiaren ikur bizia da. Ume-umetatik erbestea ezagutu zuen; nerabea zela, Libanoko errefuxiatuen kanpamenduetan, Mugimendu Arabiar Nazionalarekin bat egin zuen; eta, 1967an, PFLP Palestinako Askapenerako Herri Frontea alderdi ezkertiarrarekin. 1969ko abuztuaren 29an Los Angelesetik Tel Aviverako 840 hegaldiaren bahiketan parte hartu zuen. Gerora iraultzaren iruditeriaren ikono bilakatu zen argazkia egin zion Eddie Adams argazkilariak. Neska gazte batek eztiro eta irribarre iradokitzaile batekin AK-47 fusila besarkatzen zueneko erretratuak mundura zabaldu zuen erresistentzia palestinarraren irudi erromantikoa. Handik urtebete eskasera, 1970eko irailaren 6an, beste hegazkin bahiketa saiakera batean atxilotu zuten Leila gaztea.

Gaur, Amanen (Jordania) bizi da, eta PFLP alderdiko buruzagia izaten jarraitzen du. Egunotan, Bartzelona bisitatu du, Literal liburu azokan bere biografiaren katalanezko argitalpenaren aurkezpenean parte hartzeko. Mezu irmoa utzi du bertan: «Iraultza bizitza da, bizitzaren arlo guztietan».

Egun hauetan Nakbaren urteurrena oroitu duzue palestinarrek. Zu zeu ere duela 69 urte erbestera bidalitako ehunka mila palestinarraren horietako bat zara. Nola oroitzen duzu zure jaioterria, Haifa? Eta 1948ko hondamendia?

Gure lurraldetik bota gintuztenean, umea besterik ez nintzen ni, 4 urte nituen, eta ez dut apenas orduko oroitzapenik. Etxeko eskailerak gogoratzen ditut eta sukaldea... Haraxe jaitsi nintzen korrika ezkutatzerantz bonbardaketa hasi zenean. Ama deika ari zitzaigun, etxetik atera gintzen, alde egin behar genuela...

«Iraultza bizitza da, bizitzaren arlo guztietan»

LEILA KHALED

PALESTINAKO EKINTZAILEA

Palestinako erresistentziak bizi du. Duela egun batzuk Bartzelonan izan da, bere biografia katalanez aurkezten. Bere herriaren historia eta oraina zauriz josita dago. Geroa desberdina izan dadin lanean segitzen du.

Isidre Pallas eta Koldo Sagasti

Baina ni hortxe gelditu nintzen ezkutatuta, mugitu eta erantzun ezinik, aurkitu ninduten arte. Hura ondotxo gogoratzen dut. Halaber, gogoratzen dut ihesean autoan gindoazela, jende asko eta asko ikusi genuela oinez alde egiten. Ama negarrez, eta gu, anaia-arrebok ere, negar zotinka.

Munduan zehar ospetsua bilakatu zintuen Eddie Adamsek egindako erretratuak. Nola eragin zizun pertsonalki emakume ekintzailearen irudi erromantiko hark?

Bai, oso famatua izan zen argazki hura... Baina irudi horren gainean sakondu egin behar da, azaldu behar da ez nauela neu bakarrik irudikatzen, gudari bat, esku artean fusila daramana, iruditik harago begiratu behar da, pertsona soil bat baino mugimendu oso bat irudikatzen baitu...

Eta nola eragin zion argazkiak palestinarren borrokari?

Uste dut jendeari gustatu egin zitzaioela argazkia, orduan gauza berritzailea zelako emakume bat arma bat esku artean ikus-tea... Irudi berritzailea zen hedabideentzat, baina ez zen kontu berria, izan ere, emakumeok aspalditik ari ginen parte hartzen Palestinako askapen borrokan.

Irudi hark lagundu zuen, nola bait, Mendebaldean emakume palestinarrengandik daukagun irudi estereotipatua desmuntatzen. Zer nolakoa da emakumeen parte hartzea Palestinako jarduera politikoa?

Emakumea erresistentziaren ari-ma da, baina nor bere erara... Nire kasuan politikan inplikaturako familia batean hazi nintzen. Neba nagusia Mugimendu Arabiar Nazionaleko kidea izan zen. George Habash buruzagi palestinarraren esanguratsuak sortu zuen mugimendu hura, beste batzuekin batera... Unibertsitatean zebilela neba bera hasi zen anaia-arrebok antolatzen. Nik 14 urte nituen, gazteena nintzen, baina tematu egin nintzen, neuk ere parte hartu nahi nuen. Horrelaxe hasi nintzen eskuorriak banatzen, pintadak egiten... 15 urterekin kolaboratzaile moduan onartu nintzen.

duten eta 16rekin buru-belarri sartu nintzen mugimenduan, 1952an, Nasserren Egiptoko iraultzaren garaian. Ikasle mugimenduan aritu nintzen Egiptoko Unibertsitatean eta han Palestinako Ikasleen Batasun Orokorreko buruzagi hautatu ninduten. Handik Palestinako Askapenerako Herri Frontean sartu nintzen. Frontearen programa politikoak gizon eta emakumeen berdintasuna ezartzen zuen askapenerako borrokan; eta halaxe jorratu zen, Palestinan zein Palestinatik kanpo. Emakumeak errespetatu egin behar ziren... Bagenekien emakumeen irudia aldatu behar genuela gure kulturari, emakumeak gizonetik parekotasunean jarri behar genituela. Erakutsi behar genuen emakumearen papera ez dela bakarrik ezkontzea eta seme-alabak edukitzea, hori ere inportantea bada ere... Ni neu askatasunaren aldeko borrokalaria naiz, eta, aldi berean, familia osatu dut, ama naiz, eta amona... Eta harro nago horretaz, azken batean gizakiak gara, eta nork bere erara egin behar du iraultza. Ni ez naiz salbuespena.

Gaur egun ere ikusten al duzu zeure burua islatuta argazki hartan?

Bai, noski, ni neu naiz, orduko berbera: gudaria. Egun, ordea, beste modu batez egiten dut borroka. Hasieran armak hartu genituen, iraultza armatua defendatu genuen, nik neuk ekintza militarretan parte hartu nuen. Orain, horrez gain, politikaria naiz, jendeari gure borrokaz hitz egiten diot, azaltzen diet zein den gure arerioa, eta zergatik ari garen borrokan... Esan nahi dut borrokan jarraitzen dudala, baina orain bestelako baliabide batzuekin, orain hitza baliatzen dut. Bi borroka tresnok dira zilegi. Modu asko daude etsaiari aurre egiteko, baina uste dut gaur egungo Palestinako testu inguruan borroka armatua ezinbestekoa dela.

Palestinako erresistentzia laiko eta ezkertiarreko buruzagi historikoetakoa zara. Zein da gaur egun ezkerraren papera Palestinako esparru politikoan?

Ezkerraren zeregina herria mobilizatzea da. Kontua da Osloko Hitzarmenen ondoren gutxieneko programa adostu zela alderdi guztien artean Palestinako borrokaren alde, eta ezkerre ere akordio horretan sartu zen. Horregatik bat egin genuen, batasuna lortzearen, kontrakoak are ahulago egiten gintuelako...

Eta zein da Palestinako ezkerrek gizartean duen eragina?

Uste dut ezkerrek eragin handia daukala gizartean, baina, era berean, oztopo handia dago ideia ezkertiarrek hedatzeko: kultura erlijiosoa. Izan ere, islama, gure gizartean, erlijiotik harago doa, kultura da. Guretzat, PFLPren tzat, zaila da ideia erlijiosoei aurre egin eta aldi berean ideia politiko kontserbadoreen kontra jotzea. Oso arriskutsua da, politika arloan, erlijioa korronte ideologiko nagusia bilakatzea.

Zein da ezkerren eginbeharra erakunde islamikoen erlijotasunaren eta Palestinako Aginte Nazionalaren kolaborazionismo, ustelkeria eta eraginkortasun ezaren artean?

Aipatutakoa ez da bakarrik ezkerren kontua, arlo ezberdinetan lanean diharduten indar demokratiko guztiena baizik, baita alderdi islamikoena eta PAN berean barruan dihardutenena ere... Egungo arazoa israeldarrekiko koordinazioa da. Gure alderdian beti gaitzetsi dugu, gure argitalpen guztietan errefusatu dugu, "segurtasun arloko koordinazio" delako horrek dakarren arriskua. Esan diogu PANi ezin duela kolaboratu okupazio indarrekin. "Segurtasuna" diotenean Israel eta Israelgo interesak babestea esan nahi dute, eta ez palestinarrek babestea.

PAN erakunde demokratikoa da? Palestinako herriaren ordezkari izateko zilegitasunik ba al du?

Demokratikoa dela diote, baina nire ustez ez da. PAN Osloko Hitzarmenetatik sortutako erakundea da, horrek esan nahi du ez gaituela palestinar guztiok ordezkatzeko, ez behintzat akordioek PANi onartzen dizkieten ere-

muetatik kanpo bizi garenok: errefuxiatuak, 48ko eremuetako palestinarrek, diasporakoak... OLPk, ordea, bai, palestinar guztiak ordezkatzeko zituen, Osloko Hitzarmenak egin zituzten arte behintzat... Gero borroka armatua bertan behera uztea adostu zuten. PANek ezin gaitu inola ere ordezkatu, inongo autoritatek ez daukalako! Batetik, ez da "agintea", Zisjordania eta Gazako zati batzuetan baino ez dutelako kontrola; ez dituzte mugak kontrolatzen, ez dute eskumenik palestinarren etxeen birrintzeari aurre egiteko, ezta ordezkariak libreki hautatzeko... Beraz, zer autoritate klase da hori? Eta bestetik, ez da "nazionala", ez duelako ordezkatzeko herri palestinar osoa.

Deskribatzen duzun testuinguru horretan bideragarria al da, gaur egun, Osloko Hitzarmenetan proposatutako bi estatuen konponbidea?

Ezer baino lehen esan beharra daukat konponbide horren kontra nagoela. PFLP alderdiko ordezkaria naiz, eta gure erakundearen hasieratik izan ginen



«Palestinan bizi garen guztiok elkarrekin erabaki behar dugu gure herriaren etorkizuna. Ez da bidezkoa juduei 'Jainkoak agindutako' lurretan estatu bat ematea, eta palestinarrei okupatutako zati ñimiño bat»

israeldarrek eta estatubatuarrek gerra garaian proposatutako konponbide horren kontra. Bi estatu banatu proposatzen zituzten bi herri banaturentzat. Juduak mundu osotik etorri ziren gure lurra okupatzera; no-rentzat da, orduan, onuragarria konponbide hori? Palestinarentzat ez behintzat. Bi estatuen konponbidea onartzeak Israelgo estatua gaur egungo eremuetan onartzea dakar. Guk onartu egiten dugu, bai, baina okupazio indar bezala.

Bi estatuen konponbidea onartzeak nola eragingo lioke sei milioi errefuxiatu palestinarrek jaioterrira bueltatzeko duten eskubideari?

Bi estatuen konponbidea onartuz gero, ezerezean geratuko litzateke errefuxiatuen itzultzeko eskubidea. Izan ere, Israelek errefuxiatuak dagoenik ere ukatu egiten du, ondorioz, edozein eskubide ukatzen die, are gehiago jaioterrira bueltatzeko eskubidea. Utzidazu zerbait esaten: gatazkaren konponbidetako gakoak gure jaioterrirako itzultzeko eskubidea bermatzea

da, eta kolonoen kokalekuak bertan behera uztea. Baina Netanyahu edozein eskubide ukatzen dio herri palestinarri, quintasuna ere ukatzen digu.

Estatu laiko eta demokratiko bakarra al da, orduan, konponbidea? Bideragarria al da hori?

Iraultza honi ekin genionetik guk konponbide politikoa eman nahi izan diogu gatazkari: estatu laiko eta demokratiko bakarra Palestina historikoaren eremuan, eta pertsona errefuxiatuen itzulera euren jaioterrietara. Palestinan bizi garen guztiok elkarrekin erabaki behar dugu gure herriaren etorkizuna. Ez da bidezkoa juduei "Jainkoak agindutako" lurretan estatu bat ematea, eta palestinarrei okupatutako zati ñimiño bat. Estatuak bakarra eta demokratikoa izan behar du, bertan elkarrekin bizi gaitezen; oinarritzeko giza eskubidea da hori. Bestela, gatazkak iraun egingo du.

1.600 preso politiko palestinarretik gora gose greban daude iragan apirilaren 17tik. Israelgo Administrazioaren egoskor-



Argazkiak: Elsa FOSCA

keria ikusita, zer ibilbide aurreikusten diozu protestaldi horri?

Hau ez da Palestinako Askapen Mugimenduak burutzen duen lehenengo gose greba: 24. gose greba da. Eta aldarrikapenak oso oinarritzkoak dira, presoek giza eskubideei lotuak. Hogeita sei egun daramatzate [elkarrizketa egin zen egunean], eta egunez egun gero eta preso gehiagok egiten dute bat ekimenarekin. Dagoeneko 1.800 grebalarari inguru dira, Israelgo kartzeletan dauden 6.500 preso palestinarretatik... Protestaldiak oso posizio zailean uzten du Israel; izan ere, eskakizunei men egiten ez badie, preso gehiagok egingo dute bat grebarekin. Aldarrikapenak oso oinarritzkoak dira: atxiloteta administratiboen erregimena eta inkomunikazioak bertan behera geratzea, senitartekoen bisitak erregularatuzenez baimentzea, atxilotutako ikasleei ikasketak jarraitzeko aukera ematea, eta presoek osasun arreta duina eskaintzea.

Uste duzu presoek borroka bateratu horrek Palestinako fakzio politiko zatikatuak hurbiltzeko balio dezakeela?

Noski, oso potentzia da presoek fakzio politiko guztiei bidali dieten mezua, modu bateratuan antolatu behar dela borroka, ez alderdi bakoitza bere aldetik ibilita. Deiadarra Fatah eta Hamasi dago zuzenduta bereziki, Ramallah eta Gazako agintariei, bat egin dezaten. 2006an gose greban zeuden presoek txosten bat idatzi zuten batasun hori aldarrikatzeko, eta 2011n kartzela barrurako programa politiko gisa hartu zuten txosten hura. Kartzeletatik kanpo ere badago fronte nazional bat osatzeko deia, borroka indartzeko eta jarraitzeko.

Palestina nazioarteko elkartasunaren eta mundu osoko gobernu kanpoko erakunde jardunaren jomuga da. Zure ustez nola eragiten die horrek bertako gizarte harremanei?

Okupaziopean den herri batez ari garenean, mundu guztiak egon beharko luke inplikaturik,



eta alderdi politikoek ere egin beharko lukete jendea okupazio horren aurka mobilizatzeko lana. Gobernu kanpoko erakundeak, berriz, gizarte zibilaren erakundeak dira. Lehen ez zegoen ia bakar bat ere Palestinan, eta orain barra-barra daude. Egoera larrienak arintzeko tresna dira, eta horrela borrokan ari direla sinisten dute... Baina ni, pertsonalki, ez nago guztiz ados euren jardunarekin. Zenbait erakunde, USAID AEBetako Garapenerako Nazioarteko Agentzia kasu, AEBetako inteligentzia zerbitzuei lotutako agentziak dira. Hori bai, badira Palestinako

«Oso famatua izan zen argazki hura, baina sakondu egin behar da: ez nau neu bakarrik irudikatzen —esku artean fusila daraman emakume gudari bat—, mugimendu oso bat irudikatzen du»

borrokari ez bairik gabe laguntzen dioten erakundeak ere... Nazioarteko erakundeek asistentzia lana egiten dute, bai, baina, lehen esan dudana bezala, palestinarrok burutu behar dugun borroka armatua da. Bestelako borroka bideak ere badira, hala nola, tartekaritza politikoa, BDZ kanpaina... Baina palestinarrok ezingo dugu gure gatazka politikoa konpondu indar armatua erabili ezean. Ez dugu gustuz egiten, baina etsaiaren bortizkeriari erantzuteko zilegizko bitartekoa da. Nazioarteko komunitateak esaten digu palestinarroi negoziatu behar dugula, baina

24 urte daramatzagu negoziazio antzuetan sartuta eta ez da ezer aldatu! Jendea euren lur eta etxeetatik botatzen jarraitzen dute, lurra lapurtzen jarraitzen dute, gero eta kokaleku gehiago daude kolonoentzat, gero eta preso gehiago, gero eta *apartheid* erregimen itogarriagoa... Horixe izan da negoziazio urte horiek guztien emaitza.

Zer iritzi diozu BDZ Israelen aurkako Boikot, Desinbertsioak eta Zigorrek mugimenduari?

BDZ kanpainak emaitza onak lortu ditu Europan, AEBetan, Kanadan... Mundu osoan zehar, batez ere Hegoafrikan, bertan gerra krimenezat baitaukate *apartheid*-a. Boikotarena herri mugimendua da, ez da ofiziala, ez du gobernuen babesa. Mugimendu handia bihurtzen den heinean gobernuak presionatzeko ahalmena izango du, jarrera alda dezaten, eta okupazioa zigor dezaten. BDZ mugimenduak Palestina du jomuga, baina mundu osoan zabaltzen den borroka da... *Apartheid*-aren aurkako boikotaren esperientzia ez da bakarrik erakunde edo kanpaina baten kontua, eraldaketa pertsonalak ere eragiten ditu, edonoren eskura dagoen tresna da adierazpen askatasuna gauzatzeke. Nazioarteko komunitatea ahaztu egin da gutaz, eta laguntza humanitaria da eskaintzen diguten gauza bakarra, baina orain jendeak badauka tresna bat gobernuak presionatzeko.

Presio talde sionistek kanpain handia egin dute Bartzelonara etor ez zintezan, zer esan-go zenieke terrorista izatea leporatzen dizuten horiei?

Ezer baino lehen esan behar da gure lurra okupatzen dutenak direla terroristak, gu askatasunaren aldeko borrokalariak gara. Horregatik gara ongi etorriak Bartzelonan, eta ez da lehenbiziko aldia. Hemen gure borroka babesten duten anaia-arrebak topatu ditugu. Egia esan, nonahi topatzen ditugu; horregatik ez gara beldur. Hau ez da bakarrik palestinarren arazoa, injustizia honek dirauen bitartean, mundu osoaren arazoa da.